



BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEAREN 2010eko JARDUEREN MEMORIA



2010eko jardueren memoria



IREKIERA EKITALDIA

2010eko uztaila

Irekiera ekitaldia, Federico Mayor Zaragoza
Bakearen Kultura Fundazioko lehendakariarekin



Federico Mayor Zaragoza UNESCO erakundeko zuzendari nagusia izandakoa eta gaur egun Bakearen Kultura Fundazioko lehendakaria, Francisco Fonseca Europako Batzordeko Espainiako ordezkaria eta Odon Elorza Donostiako alkatea Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen irekieran komunikabideen aurrean egindako aurkezpenean.



Federico Mayor Zaragoza Bakearen Kultura Fundazioko lehendakariaren irekiera hitzaldia: "Bakearen Kultura: indarretik hitzera, trantsizio handia".



Donostiako Udalaren Eskolako Jan Van der Goot laukotearen kontzertua.

2010eko uztaila

Irekiera ekitaldia, Federico Mayor Zaragoza Bakearen Kultura Fundazioko lehendakariarekin

IREKIERA EKITALDIA



Donostiako Club Bonsai Elkartearen hainbat espezieetako 30 bonsai; horien artean, balio handiko olibondo bat.



“Afganistango alderdiak” erakusketaren inaugurazioa eta kultur etxeak berau eraikitzeari buruz egindako erakusketa; jauregia birgaitzeko lanak; eta, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen jarduera ardatzak.



Jauregiko solairu nagusia publikoari ireki zaio, birgaitze lanak amaitu ondoren.



Federico Mayor Zaragoza Bakearen Kultura Fundazioko lehendakariak ohorezko liburua sinatu zuen.

**“Bakea da bidea.
Indarretik hitzera,
elkarrizketarako eta
akordiorako zubiak
eraikitzeke eguneroko
gure jokabidean”,
Federico Mayor
Zaragoza.**

2010eko uztailetik urrira

Irekierako erakusketa

- Erakusketak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen jarduera ardatzak ezagutarazi zituen, eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean eta Aiete Kultur Etxean lanak nola egin ziren azaldu zuen.

IREKIERA EKITALDIA



Kultur Etxearen planoak.



Alkatearen agurra: "Bakea irabazi eta partekatzea".




Aiete Kultur Etxearen sarrera.



Partaidetza bidez egindako origami handi batetik abiatuta sortutako bakearen aldeko usok; bakearen eraikuntza adierazi zuen.



Giza Eskubideei eta Bakerako Oinarriari buruzko dokumentalaren gunea; Giza Eskubideen arloak egindako jardueren berri eman zuen.



Giza Eskubideen Zinemaldiari buruzko filmen eta ikus-entzunezko informazioen emanaldiak.



1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.



Bakearen Kulturaren aldeko aipamenak.



Aieteko Kultur Etxearen "making off-a". Lanei buruzko argazkiak eta bideoa. Xehetasun handiko ortoargazki bat eta planoak ikus zitezkeen.



"Adierazpen gazteak bakearen alde" gunean "Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko ipuinak eta marrazkiak" lehiaketan saritutako hainbat ipuin eta marrazki ikus zitezkeen. Gune horretan hurrek beren marrazkiak egiteko eta beren kezkei buruz idazteko aukera izan zuten.




Donostiako Oroimenaren Mapa. "Oroimena funtsezko eskubidea da terrorismoaren biktimentzat. Aurrera jarraitzeko eta gertatutakoari buruzko kontaketa gizatiarragoa eta egiazkoagoa finkatzeko bide ematen du, eta bidezkoagoa eta libreagoa den bizikidetzarako funtsezko baldintza da. Terrorismoaren biktima guztiek izan behar dute lekua gure hiriko historia kolektiboaren mapan.

IREKIERA EKITALDIA

2010eko uztailetik urrira

Irekierako erakusketa



Bakearen Kulturaren aldeko bost lagun: Mahatma Gandhi, Ana Frank, René Cassin, Wangari Maathai eta Martin Luther King.

"Amets bat dut, amets bakarra: amets egiten jarraitzea. Askatasunarekin amets egitea, justiziarekin, berdintasunarekin. Eta nahiago nuke jadanik horiekin amesteko beharrik izango ez banu", Martin Luther King.

IREKIERA EKITALDIA

Aieteko jauregia, ateak irekita

2010eko uztaila

Jauregiko solairu nagusian menu elkarreragile bat eta bideo historiko bat jarri dira.



INAUGURAZIO OFIZIALA

2010eko iraila

Inaugurazio ofiziala



Ángeles González-Sinde Kultura ministroa, Patxi López Eusko Jaurlaritzako lehendakaria eta Odón Elorza Donostiako alkatea Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen inaugurazioan.



Eusko Jaurlaritzako zenbait sailburu, Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusia, Rafaela Romero Batzar Nagusietako lehendakaria, Kongresuko euskal diputatuak eta Donostiako Udaleko kideak inaugurazio ekitaldian.



“Oso atsegina izan da, benetan, demokraziak diktadurari, askatasunak intolerantziari eta bakeak indarkeriari irabazi dion metafora perfektu honetan parte hartzea. Aieteko Jauregi berri hau bakerako eta askatasunerako bidean argituko gaituen argia izan dadila. Zorionak!” Patxi López, lehendakaria.



AIETE KULTUR ETXEAREN INAUGURAZIOA

2010eko abendua

Aiete Kultur Etxearen inaugurazioa

- Programazio zabala eta jarduera ugari egin ziren.
- Inaugurazio ekitaldian artista eta talde askok parte hartu zuten.



HITZARMENAK

HITZARMENAK

2010eko ekaina

UPV-EHUren eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen arteko lankidetzaren hitzarmena

- UPV-EHU Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen zuzendaritza akademikoaz arduratuko da.
- Hitzarmeneko konpromisoak:
 - UPV-EHUK Giza Eskubideei buruzko ikastaroak antolatuko eta garatuko ditu.
 - UPV-EHUK lau beka esleitzea eta kudeatzea Estrasburgoko René Cassin Giza Eskubideen Institutuko urteko irakaskuntza saioan parte hartzeko.
 - Henry Dunant Fundazioarekin, Garapen Bidean elkartarekin eta Eusko Jaurkitzako Gizarte Gaietarako Sailaren lankidetzarekin Gizarte Eskubideen, Politika Publikoen eta Kudeaketa Humanitarioaren Espezializazio Nazioarteko Diploma ematea.
 - Giza Eskubideen alorreko ikertzaileak erakartzeko jarduerak martxan jartzea.
 - Hitzaldiak, eztabaidak, mintegiak eta abar antolatzea.



Odón Elorza, Donostiako alkatea, eta Cristina Uriarte, UPV/EHUko errektoreordea, hitzarmenaren sinaduran.

HITZARMENAK



Rodolfo Ares Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburua, Idoia Mendia Justizia eta Herri Administrazioako sailburua eta Odón Elorza Donostiako alkatea hitzarmenen sinaduran.

2010eko uztaila

Eusko Jaurlaritzaren (Herrizaingo Saila eta Justizia eta Herri Administrazioa Saila) eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen arteko lankidetzak hitzarmenak

- Eusko Jaurlaritzak 2010 eta 2011 artean 240.000 euro emango ditu hainbat programa eta jarduerak garatzeko.
- Justizia Sailak garatutako Bizikidetzak demokratikoaren eta indarkeriaren deslegitimazioaren planaren eta Terrorismoaren Biktimen Arretarako zuzendaritzaren bidez Herrizaingo Sailak kudeatzen duen Terrorismoaren Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legean kokatzen da.

HITZARMENAK



Odón Elorza Donostiako alkatea, Jadiya Hamdi SEADeko (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko) Kultura ministroa eta Josu Ozcoz CEAS erakundearen (Sahararen aldeko Elkarteen Estatuko Koordinakundea) ordezkaria Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren eta FISAHARAren arteko senidetza akordioaren sinaduran.

2010eko iraila

FISAHARAren eta Giza Eskubideen Zinemaldiaren arteko senidetza

- **Konpromisoak:**

Giza Eskubideen Zinemaldia

- Programazioaren eta komunikazio plataformen arloan FISAHARA aholkatzea, zabaltzea eta babestea.
- Mendebaldeko Sahararekin eta Zinemaldiarekin zerikusia duten erakusketak, filmak eta berriak ezagutarazten laguntzea.
- Human Rights Film Network sarearen bidez errefuxiatuen kanpaleku batean egiten den munduko jaialdi bakarra ezagutzera ematea.
- Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak saharar gaiei buruzko atal bat edukitzea dokumentazio zentroan.
- Abidin Kaid Ikus-entzunezkoetako Prestakuntza Eskolarekin lankidetzan aritzea, ikus-entzunezko materiala emateko.
- FISAHARA n euskal aktore eta zuzendari gehiago egon daitezen laguntzea.



Hitzarmenaren sinadura

2010eko urria

Udalaren eta Unibertsitatearen arteko hitzarmena, Gobernantza Demokratikoaren arloan

- Gobernantza Demokratikoaren eta Giza Eskubideen arloko baterako ekimenak garatzeko hitzarmen espezifikoak.
- Gobernantza Demokratikoaren Institutuaren bidez lankidetzan aritzea.
- **Konpromisoak:**
 - Elkarrekin lanean arituko dira ikastaroak, biltzarrak, jardunaldiak, *workshop*ak, prestakuntza programak, ikerketak eta azterketen eta txostenen hedapena antolatzeke, besteak beste.
 - Giza eskubideen eraginkortasunerako adierazleen sistema bat gauzatzeko ikerketa egitea, helburu horrekin lanean ari diren nazioarteko ikerketa zentrozen sarearekin elkarlanean.

HITZARMENAK

Euskal Herriko Unibertsitatea

- Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Sailaren bidez, nazioarteko bere kontaktu sareak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen esku jarriko ditu, antzeko ezaugarriak dituzten beste zentro batzuekin lankidetzan aritzeko.
- Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen izaera zientifikoa eta ikertzailea sendotzeko hainbat jarduera egingo ditu urtero.

Udala

- Gobernantza Demokratikoaren esku jarriko du Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea, Aieteko Jauregian.

• **Gobernantza Demokratikoaren Institutua**

- Ikerketa lerroak: ezagutzaren gizarteko gobernua; gobernantza globala eta munduko ordena berria; Europar Batasunaren etorkizuna eta Giza Eskubideen eraginkortasuna.
- Zuzendaria Daniel Innerarity da, Filosofia Politikoan eta Sozialean katedraduna eta Ikerbasque ikertzailea UPV/EHUn, eta idazkaria, berriz, Juan José Álvarez da, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuan katedraduna eta Eurobaskeko (Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua) idazkari nagusia.

Nazioarteko Aholkulari Kontseilu bat dauka; bertan, besteak beste, Javier Solana, Ulrich Beck eta Alain Tourainek hartzen dute parte, eta gobernantzari buruzko ikerketan aritzen diren munduko hainbat zentzorekin lankidetzan hitzarmenak dituzte.

HITZARMENAK



Lankidetza hitzarmenaren sinadura

2010eko azaroa

Donostiako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren arteko lankidetza hitzarmena, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Diplomari buruz

- Ekonomia Eskubideen Nazioarteko Diplomaren helburua Giza Eskubideen nazioarteko zuzenbidea eta politika publikoak hobeto uler daitezen laguntzea da, garapenerako lankidetza eta ekintza humanitarioa, batez ere.
- Diploma Garapen Bidean elkarrekin antolatzen du, Henry Dunant Institutuarekin elkarlanean.
- **Konpromisoak:**
 - Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak 147.000 euro emango ditu proiektu hau antolatzeko, koordinatzeko eta garatzeko.
 - Udalak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeko guneak utziko ditu horretarako.

AURKEZPENAK ETA BILERAK



AURKEZPENAK ETA BILERAK

2010eko otsaila

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen aurkezpena
“Kooperazio deszentralizatua eta bakearen
eraikuntza” saioan, Granollersen



2010eko apirila

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen aurkezpena
Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko XX.
Jardunaldietan

AURKEZPENAK ETA BILERAK



2010eko maiatza

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen aurkezpena “René Cassin” Giza Eskubideen Institutuan

- Proiekturako babesleak lortzea izan zen xedea, baita laguntza bilatzea eta Europarekin sareko lana indartzea ere:
 - “René Cassin” Giza Eskubideen Institutuko lehendakariarekin eta idazkari nagusiarekin akordio bat zehaztu zen, unibertsitate ikastaroen alorrean lankidetzan aritzeko Giza Eskubideei buruzko ikerketak egitean, elkarrekin mintegiak antolatzean, “René Cassin” Institutuan gazte donostiarrentzako bekak gehitzean eta beste proiektu interesgarri batzuetan jardutean.
 - “Estrasburgoko Klubaren” baitan lanean aritzeko konpromisoa.
 - Europako Kontseiluaren kultura arteko elkarriketari eta gizarte kohesioari buruzko proiektu berri batean Donostiak parte hartzeko akordioa.

AURKEZPENAK ETA BILERAK



Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen aurkezpena

- Terrorismoaren eta
Indarkeriaren biktimen
foroa

- Alacanteko
Unibertsitateak
antolatutako “Gatazkak
eta Bakea I.
Jardunaldia”

- Elkarte bakezaleak
Topalekuan

- José Luis de la Cuesta
Udako Ikastaroen eta
Europako Ikastaroen
zuzendariarekin eta
Juanito Etxeberria
zuzendariordearekin lan
bilera



2010eko ekaina eta uztaila



- Aieteko Bizilagunen Elkartea

2010eko uztaila

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea Ángeles González Sinde Kultura ministroari aurkeztea

Ángeles González-Sinde Kultura ministroak San Telmo museoko lanak ikusteaz gainera, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea ere bisitatu zuen.

“Eskerrik asko, Elorza alkatea, leku pribilegiatu bat guztiontzako leku bilakatzeko ideia bikaina izateagatik”, Ángeles González-Sinde.



Cristina Garmendia Zientzia eta Berrikuntza ministroak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean nazioarteko goi mailako bilera bat sustatzeko konpromisoa hartu zuen

AURKEZPENAK ETA BILERAK

2010eko abuztua

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea Cristina Garmendia Zientzia eta Berrikuntza ministroari aurkeztea

“Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeko liburu hau ilusioz eta emozioz beteta sinatzen dut. Onena opa diot Giza Eskubideen defentsaren oroimenerako eta etorkizunerako hain beharrezkoa den proiektuari.

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak konpromisoa hartzen du Zientziaren gizarte ardatza gara dadin laguntzeko eta txirotasunaren eta gizarte bazterketaren aurkako borrokan ekarpena egiteko”, Cristina Garmendia.

AURKEZPENAK ETA BILERAK

2010eko iraila




Emilio Cassinello CITPAX zentroko lehendakariorde eta zuzendariarekin eta Shlomo Ben-Ami Israelgo Atzerri Ministro ohiarekin lan bilera



Robert Palmer Europako Kontseiluko Kultura eta Kultur Ondareko zuzendari nagusiarekin eta Manu Lezertua Europako Kontseiluko Zerbitzu Juridikoen zuzendariarekin lan bilera



Manuel Dios Compostelako 2010eko Munduko Foroaren idazkari koordinatzailearekin lan bilera



Daniel Innerarity
Gobernantza
Demokratikoaren
Institutuko
zuzendariarekin lan
bilera

AURKEZPENAK ETA BILERAK



Gaspar Zarrías Lurralde Politikako idazkariarekin lan bilera, Toki Inbertsiorako Estatuko Funtzari buruz



Wiesbadeneko Senidetza Batzordearekin lan bilera

2010eko urria

Ana Barrero Cultura de Paz Fundazioaren
Dokumentazio Zentroko arduradunarekin
lan bilera



AURKEZPENAK ETA BILERAK



Odón Elorzak Giza Eskubideak Hirian Babesteko Europako Gutunaren XII. Biltzarrean parte hartu zuen, Tuzlan.

2010eko urria

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen aurkezpena Tuzlan (Bosnia-Herzegovina) eta Vucovarren (Kroazia)

- Parte hartu zuten hiriak: Saint-Denis, Lyon, Bobigny, Nantes, Tolosa (Frantzia), Rijeka, Zagreb, Vukovar (Kroazia) Sarajevo (Bosnia) eta Bartzelona, besteak beste.
- Odón Elorzak, Donostiako alkateak, honako hitzaldi hau eman zuen: “Bizikidetzarako eskubidea lau ardatz oinarritzat hartuta: Bakearen Kultura, Giza Eskubideei errespetua, Balio Hezkuntza eta Oroimen Historikoaren egitekoa”.
- Odón Elorzak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea aurkeztu zuen.
- Topaketa horretan erabaki zen Donostiak hartuko duela 2012an egingo den Giza Eskubideen aldeko Europako Hirien Sarearen nazioarteko biltzarra.

AURKEZPENAK ETA BILERAK

2010eko urria



Odón Elorza alkateak Javier Garrigues Nazio Batuen Erakunderako Espainiak izendatutako enbaxadorearekin lan bilera egin zuen Nazio Batuen Erakundearen Genevako egoitzan, babesa eta kontaktuak eskatzeko.

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen aurkezpena Genevan

- Nazio Batuen Erakundeko Idazkaritza Nagusiaren mende dagoen Giza Eskubideetarako Goi Komisariotzaren ordezkariekin bilera egin zen, Euskadirentzat interesgarriak diren auziak aztertzeko eta Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen eginkizunetarako lankidetzak bilatzeko.

HITZALDIAK

HITZALDIAK

2010eko uztaila

Espainiak Indiarako izendatutako Ion de la Riva enbaxadorearen hitzaldia, *Gandhi* filmaren proiektzioa eta Easo Araoz Gazte Abesbatzaren kontzertua

*“Gandhiren legatua eta gaur egungo India”, Espainiak Indiarako izendatutako Ion de la Riva donostiarraren hitzaldia eta Richard Attenboroughen *Gandhi* filmaren proiektzioa.*



Easo Araoz Gazte Abesbatzaren kontzertua.



2010eko abuztua

Iñigo Gurruchaga Londresko berriemailearen hitzaldia, *The Boxer* filmaren proiektzioa eta Limerick taldearen kontzertua



*“Indarkeriaren legatua Ipar Irlandan”, Iñigo Gurruchaga kazetari eta Londresko berriemailearen hitzaldia eta Jim Sheridanen *The Boxer* filmaren proiektzioa.*



Limerick taldearen musika irlandarraren interpretazioa.

**JARDUNALDIAK,
TOPAKETAK,
MINTEGIAK ETA
LANTEGIAK**



Estatuko eta nazioarteko hainbat politikok eta akademikok parte hartu zuten; besteak beste, Javier Solana NATOk idazkari nagusi ohi eta ESADEko Ekonomia Globalerako eta Geopolitikarako Zentroko lehendakariak, Edgar Grandek (Municheko Unibertsitatea) edo Zaki Laidik (Sciences Po institutua, Frantzia).



JARDUNALDIK, TOPAKETAK, MINTEGIAK ETA LANTEGIAK

2010eko urria

“Arrisku globalak gobernatzea” jardunaldiak, Javier Solana NATOk idazkari nagusi ohi eta ESADEko Ekonomia Globalerako eta Geopolitikarako Zentroaren lehendakariarekin

- Antolatzaileak: Lehiakortasunaren Euskal Institutua (Orkestra), Gobernantza Demokratikoaren Institutua eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea.
- Herrialde guztien agenda politikoan eragina duten hainbat motatako etorkizuneko arrisku globalei (klima aldaketa, segurtasun mehatxuak, osasun eta elikadura arazoak, finantzen krisia, eta abar) buruzko gogoetak eta eztabaidak egin ziren.

JARDUNALDIAK, TOPAKETAK, MINTEGIAK ETA LANTEGIAK

2010eko azaroa

Topaketa: “Mundu iraunkorra jomugan. Elkarrekin egin beharreko zeregina?. Hainbat mailatako gobernantza eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko sinergiak”

- Nazioarteko adituak eta erakundeetako goi mailako arduradunak bildu ziren Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Ekintzako Idazkaritza Nagusiak antolatutako topaketan.
- Xedea: munduko erronka nagusiak alde politikotik begiratuta aztertzea; hala nola, klima aldaketa eta energiaren eraginkortasuna. Horrez gainera, hazkunde jasangarria lantzea.
- Patxi López lehendakariak inauguratu zuen nazioarteko topaketa hori.



Honako hauek hartu zuten parte, esaterako: Mario Molinak, Kimikako Nobel saridunak (1995) eta atmosferaren ozono geruza mehetzen ari zela aurkitu zuenak; Saskia Sassenek, Columbiako Unibertsitateko irakasleak; Gaspar Zarríasek, Lurralde arteko elkarlaneko estatuko idazkariak; eta, José Segurak, klima aldaketa aztertzeke batzordearen lehendakariak.

JARDUNALDIAK, TOPAKETAK, MINTEGIAK ETA LANTEGIAK

2010eko azaroa

Gipuzkoako Foru Aldundiak Giza
Eskubideei buruz egindako jardunaldia



JARDUNALDIAK, TOPAKETAK, MINTEGIAK ETA LANTEGIAK

2010eko abendua

**Gobernantza Demokratikoaren Institutuak antolatutako
“Parte hartzea eta komunikazioa Europako gobernantza
berrian” mintegia**

- Helburua: Europar Batasunaren baitan parte hartzearen eta komunikazioaren ikuspegi bikoitza aztertzea, europar proiektuari buruz hiritarrek azaltzen duten interes eza gainditzeko funtsezko faktoreak ikertzea, eta Europa hiritarrekine konektatzeko baliabide berriak aztertzea.



JARDUNALDIAK, TOPAKETAK, MINTEGIAK ETA LANTEGIAK

2010eko abendua

Europako alkateen arteko lan topaketa. “Hiriak eta bizikidetzaren bizikidetzaren problematika askotariko hirietan eta kulturaren egitekoa”

- Munduko hainbat lekutako alkateak eztabaidan aritu ziren hirietako bizikidetzaren problematikari buruz eta arazo horiek konpontzeko kulturak izan dezakeen egitekoari buruz.
- “Donostiako adierazpena” onartu zen. Bertan, kultura hiritarrari dei egiten zaio, gizon eta emakume guztien herritartasuna bere osotasunean baliatzeko dauden oztopoak gainditze aldera eta jarrera intolerante, xenofobo eta indarkeriazkoak baztertze aldera.
- Topaketak Donostia 2016 Hautagaitzaren babesarekin izan zuen; izan ere, bizikidetzaren bere ardatz nagusietako bat da.
- Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak ere parte hartu zuen topaketa horretan.



Bizikidetzaren Aldeko Alkateen Nazioarteko Topaketako parte hartzaileak.



Donostiako alkateak, Odón Elorzak, Donostiako Udaleko kideak eta Bizikidetzaren Aldeko Hirien Topaketan parte hartu zuten alkateek “yedoensis” espezieko gereziandoen lehenengo landareak landatu zituzten Oroimenaren Lorategian.

OROITZAPENEZKO EKITALDIAK

OROITZAPENEZKO EKITALDIAK

Azaroaren 10a, Oroimenaren eguna



2010eko azaroa

Haurtzaroaren Nazioarteko Eguna

- Donostiako Udalak hainbat jarduera antolatu zituen hiriko Haurtxokoetan.
- 2010eko gai nagusia: “Ni ere Kimbo naiz” UNICEFen kanpaina, haurren heriotza tasaren aurka borrokatzeko.



OROITZAPENEZKO EKITALDIAK

2010eko abendua

HIESAren Nazioarteko Eguna



- Donostiako Udalak, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez, Acasgi, Ehgam, Gehitu, Harri Beltza eta ONUSIDA elkarteek eta Osasun eta Kontsumo Sailak hainbat jarduera antolatu zituzten.
- Donostiak, munduko beste 100 hirirekin batera, *“Light for Rights”* kanpainan parte hartu zuen.

KANPOKO JARDUERAK



Ferrán Adrià kataluniarra eta hark zuzentzen duen Aholku Batzordeko kideak: Rene Redzepi (Danimarka), Yukio Hattori (Japonia), Máximo Bottura (Italia), Michel Bras (Frantzia), Dan Barber (Estatu Batuak), Gastón Acurio (Peru), Alex Atala (Brasil) eta Heston Blumenthal (Erresuma Batua).



Ezagutzarako parke kulturalen sarearen aurkezpena.

KANPOKO JARDUERAK

2010eko uztaila

Basque Culinary Center erakundearen Aholku Batzordea osatzeko ekitaldia

- Basque Culinary Center erakundearen Aholku Batzordea osatzeko ekitaldia Aiete Jauregian egin zen.

2010eko urria

Ezagutzarako parke kulturalen aurkezpena



Bakearen Kulturaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen arloko Jardunbide Egokien II. Jardunaldiak

- Euskadiko Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen Foroak antolatu zituen, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren laguntzarekin.
- Honako hauek hartu zuten parte, besteak beste: Paco Cascónek, Pangeako lehendakariak eta EDUPAZ bildumaren zuzendariak; Gorka Ruizek, Bakeolako zuzendariak; eta, Tica Fontek, Kataluniako Bakearen aldeko Nazioarteko Institutuko zuzendariak.

KANPOKO JARDUERAK

2010eko uztaila



“Manrais, zure esku daude” bideo jokoaren aurkezpena

- Fernando Buesa Fundazioak material didaktiko berria aurkeztu zuen, ikasgeletan Balioen Hezkuntza lantzeko.

